
ASTIGARRAGAKO
Kronika
TOKIKOM
2016ko irailaren 14a, asteazkena ::: 118 zk. ::: www.kronika.eus



z 'SAGARDO IBAIAK, BIZITZA ITURRI' ANDONI ARZALLUS

«Orain, gehiago egin eta zabaltzen da sagardoa; lehen lokalagoa izaten zen»

Ostiralean, 19:00etan, debaldeko bisita gidatuarekin inauguratuko da, Sagardoetxean, 'Sagardo ibaiak, bizitza iturri' erakusketa. Larunbatean, berriz, Urumean gora paddle surf egin ahal izango da, eta Ergobian bisita gidatua egingo du Andoni Arzallusek. Izenematea ireki da.


Andoni Arzallus Ergobiako XX. mendeko sagardotegiez arduratu da; larunbatean, berriz, Urumean gora paddle surf egin ahal izango da. / ARGAZKIA: ARTXIBOA

SAGARDOAREN Lurraldeak, Hernani, Usurbil eta Astigarragako Udalekin elkarlanean, Sagardo ibaiak, bizitza iturri erakusketa ibiltaria jarri zuen martxan apirilean, eta ostiral honetan iritsiko da Astigarragara, Sagardoetxea Museora. Arratsaldeko 19:00etan inauguratuko da, Lourdes Odriozola historialariaren bisita gidatuarekin. Larunbatean, berriz, bestelako bisita berezi bat egingo da Urumea ibaian barrena eta Ergobian. Hemen, Andoni Arzallusek (Ergobia, 1932) emango ditu azalpenak, eta zer edo zer aurreratu dio Kronikari.

Ergobin, XX. mendean ba omen ziren hainbat sagardotegi...

Zortzi sagardotegi ezagutu nituen nik, Ergobiko barrioan. Pagua (Martin Berrondo), Otaño (Joxe Arrieta), Lete (Etxehandi), Estanco (Antonio Arzallus), Isasa (Joakitene), Herrero (Manuel Irigoien), Alberro (Eprepa) eta Bereziartua (Iraberri). Horiek, komertzialak, sagardotegi bezala funtzionatzen zutenak. Gero, baserrietan ere egiten zen. Asko desagertu egin dira. Orain, Herrero eta Bereziartua geratzen dira, baina Astigarragara joan ziren.

Asko aldatu dira ordutik, sagardotegiak?

Beste estilo bat zen! Orain, gehiago egin eta zabaltzen da sagardoa; lehen lokalagoa zen. Hor zuten joera Hernani, Ergobi eta Donostialdeak. Txotxean edaten zen, egun osoan, 09:00etan ireki eta 22:00ak aldera ixten zen arte. Basoka saltzen zen; egunean 2-3 edan eta kitto.

Txotxa bera ere desberdina zen, ezta?

Garai batean upel bakarretik edaten zen, hasi eta buka, 4 egunean edo astebetean. Kanilla jarrita egoten zen, eta dozena bat baso uretan, ezpainetakoa uretan zutela, kubeta izeneko egurrezko baldean. Normalean, neskatxak irekitzen zuen kanilla; hari, behar ziren basokak eskatu, eta mahaian preparatzen zituen. Haiek pagatu, eta gero basoa utzi. Eta sagardotegiak martxotik maiatzera irekitzen ziren. Txandaka. Garai onena Aste Santua izaten zen, ostegunetik igandera jai izaten baitzen. Orduan, Ergobin 3-4 irekita ezagutu ditugu, eta Ergobitik Astigarragarako bidea, prozesioan bezala, jendez betea!

> «8 sagardotegi ezagutu nituen nik, Ergobin. Orain 2 geratzen dira, baina Astigarragan»

Eta jatekoa, izaten al zen?

Tabernan preparatzen zen jatena. Enkargartu egin behar zen; tortila, bakailua saltsan edo prejitua. Txuletarik ez. Hartu eta martxa.

Urumeak ere, ba omen zuen lotura, sagardoarekin.

Guk ez dugu hainbeste ikusi. Gu baino lehenagoko martxa zen hori. Urumea, agi danean, garraio bidea zen. Portuak zeuden Hernanin, Ergobin, Astigarragan. Guk ez ditugu ikusi, baina gabarrak ezagutu genituen, Kursaal eta Santa Katalina zubi parean, marea bajua izaten zenean: palarekin gabarra atera, puntaraino hondarrarekin bete, eta Loiolara, eraikuntzarako.

Detaileak ezagutzeko onena orduan, larunbateko bisita! Bai, bai! Gonpidapena zabaldu, ea jendea biltzen den! yy

'SAGARDO IBAIAK, BIZITZA ITURRI' ERAKUSKETA

IRAILAK 16-25

- Erakusketa ikusteko aukera, Sagardoetxea museoan, astelehenetik larunbatera 11:00-13:30 eta 16:30-19:30, eta igandetan, 11:00-13:30.
- Ikasleentzako eta taldeentzako bisita gidatuak debalde, aurretik adostuta.

IRAILAK 16

- Erakusketaren inaugurazioa, arratsaldeko 19:00etan, Lourdes Odriozola historialariak gidatutako bisita batekin, debalde.

IRAILAK 17

- Erakusketa ezagutzeko ekitaldi berezia:

15:30, Martuteneko Arraun Lagunak elkartetik aterata, Urumea ibaian gora paddle surf edo zutikako arrauna egiteko aukera. Ibilbidea Ergobiko zubian bukatuko da eta bitarte horretan, Lourdes Odriozola historialarlak bisita gidatua egingo du, euskeraz eta gaztelaniaz. Urumaik gordetzen dituen sekretuak ezagutzeko.

17:30-18:00, zutikako arraunlarien irtsiera Ergobiko zubira.

18:30, Bisita gidatua Andoni Arzallusekin, euskeraz, Ergobiko plazan, XX. mende hasierako sagardotegiak ezagutzeko. Musikari eta abeslariek ere girotuko dute bisita, eta pintxoak eta sagardoa dastatu ahal izango dira.

Izenematea: Sagardoaren Lurraldea: www.sagardoarenlurraldea.com/ 943 55 05 75. Zutikako arrauna egiteko materialaren alokairua: 20 euro.


COVIRAN
MAMEN
Janaridenda
Nagusia 20, Astigarraga
943 55 12 93

MENDIKUZE OKINDEGIA, S.L.
Troia bidea 14 - Pab. 6 - Erguina
20115 - ASTIGARRAGA
Tel. 943 55 15 98
Gl. 630 38 79 10
Gl. 629 66 69 77

z ASTIGAR TALDEA

Euskal dantzetan izenematea, gaur

Kultur Agendan akatsa egon dela jakinarazi du Astigar dantza taldeak. Hori horrela, izena emateko egunak gaurkoa eta biharkoa direla azaldu dute, 19:00etatik 20:00etara Astigar elkartean. Hilduek eta 7 urtetik gorako umeek eman dezakete izena. Era berean, gogoraraz dute jantzak ebean dauzkatenek egun hauetan buelttatu behar dituztela. yy

z BIDE MOZKETA

Hernanirako bidea itxita, dagoeneko

AHTaren obrak medio, itxita egingo da Astigarraga eta Hernani arteko bidea AMPareran, abenduaren 5era arte. Epe honetan Akarregi poligonotik bideratuko dute trafikoa. yy

z GURDI BIDEA

Ostiralean, Astigarragatik

Abuztuaren 31n abiatu ziren, Burgoko Quintanar de la Sierratik idi eta behi menditarrez osatutako hiru gurdiak. Helburua da 18 etapatan Pasaiako Alaboa Itsas Kultur Faktoriara iristea, bertan eraiktzen ari diren XVI. mendeko San Juan baleontzaren erreplikarako alkitrana eramateko. Etapa horietako bat, ostiralekoa, Astigarragtik pasako da; 08:00etan Andoaindik abiatuko da, eta Lizeaga sagardotegi parean bukatuko da. yy

z AIZTONDO

Entsaioa, etzi

Ostiral honetan egingo du Aztondo abesbatzak urteko aurreneko entsaioa, 20:00etan ikastolako aretoan. Aurten 25 urte beteko ditu, eta herritarrak abesbatzan parte hartzera animatu dituzte. Entsaioan azaltzea nahiko den orrek, harremanetarako: aiztondoabesbatza@gmail.com/ 943 33 50 64. yy

z BAGAGILTZA

Bilera Hernanin, BagaGiltzak

Gure Esku Dago herri ekimenetik BagaGiltza elkartea sortu da, udaberrian egin nahi den herri galdeketa, Euskal Herriaren etorkizunaren ingurukoa, prestatzeko. Hernanin eta Astigarragan egin nahi da galdeketa, eta horretarako, sinadurak bildu behar dira. Hain zuen, hori prestatzen hasteko bilera deitu du BagaGiltzak Hernanin, larunbatean, 10:00etan Biterin, eta astigartarrak ere deitu dituzte. yy